



**LEGEZKOTASUN TXOSTENA HEZKUNTZA SAILAREN EGITURA ORGANIKO ETA
FUNTZIONALA EZARTZEN DUEN 79/2017 DEKRETUA ETA HABEREN ARAU
ORGANIKOAK ONARTZEN DITUEN 34/1996 DEKRETUA ALDATZEN DITUEN DEKRETU
PROIEKTUARI BURUZKOA**

87/2019 LGAKZ - LT

I

HASIERA

Goian aipatutako arau ekimenari buruz, Hezkuntza Sailak legezkotasun txostena eskatu du.

Legezketasun txostena ematen da, hurrengo arauak betearazten:

- Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko Lehendakariaren 24/2016 Dekretuaren 6.1.h) artikulua.
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 14.1 c) artikulua.
- Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa antolatzen duen ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1a) artikulua. Xedapen honen arabera, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiari dagokio egin beharreko txosten juridikoa egitea, hau da, *“Xedapen orokorren proiektuak, erregelamenduz zehaztuko diren kasuetan eta irizpena egitea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari ez dagokionean”*. Eta, Eusko Jaurlaritzaren



Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 11.1 artikulua.
Aurreko xedapena garatzen duena.

II

TRAMITAZIOA

Tramitazio ikuspuntutik eta espedientea aztertuta, txosten honen idazpurua aipatzen duen arau ekimena, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedura 8/2003 Legeak eskatzen dituen aurreikuspenetara egokitzen da.

Ekimen arau hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta HABE organismo autonomoaren Lege Aholkularitzak parte hartu dute eta dagokien balorazioak eta konklusioak eman dira, espedientea horren lekuko izanda.

Baita ere, xedapen orokorren sorkuntzaren prozesu guztietan bezala, hizkuntza normalizazio, administrazio antolakuntza, enpresa eta emakume eta gizonen berdintasunaren ikuspuntuak aztertu dira, eta behar diren txostenak eman dira.

III

LEGEZKOTASUNA

Ekimen arauak bi xede ditu. Alde batetik, hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 79/2017 Dekretua aldatzea; eta bestetik, bide batez, HABEren arau organikoak onartzen dituen otsailaren 13ko 34/1996 Dekretua aldatzea.

Ekimen honen helburu nagusia Euskarazko Gaitasun Agiria edo EGA eta, orokorrean, euskarazko komunikazio-gaitasunaren inguruko egiaztagirien tituluak emateko prozesua eta ardura, Hezkuntza Sailetik Kultura eta Hizkuntz Politikoen Sailera pasatzea da.

Horretarako, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa ezartzen duen 79/2017 Dekretuaren 13. artikulua aldatzen da, euskarazko komunikazio-gaitasunaren inguruko egiaztagirien aldeko funtzioak kentzearen. Aldi berean, HABEren arau organikoak onartzen dituen 34/1996 dekretuan hainbat aldaketa egiten dira, horien artean 6.1 g) atalaren aldaketa bereziko. Honen guztiaren ondorio bezala, aurreikusitako Dekretua indarrean sartzen den unetik aurrera, arlo honetan, Kultura eta Hizkuntz Politika Sailak hartuko du ardura.

Hau dela eta, helburua adierazita, Legezkotasun Zerbitzu honen funtzioa da helarazten zaizkion proposamenak arau juridikoarekin bat datozela eta arautzeko hautatutako era adierazitako helburua lortzeko egokia dela bermatzea da, horretarako interpretazio metodo konplexuetara jotzeko beharrik gabe.

Hau horrela, helburu horretarako hautatuko metodoa ontzat hartzen da, legezkotasun aldetik. Hau da, proposatutako arau aldaketak nahikoak dira gure ustez adierazitako emaitza lortzeko, segurtasun juridikoaren aldetik. Argi geratzen da, gure aburuz, Dekretua indarrean sartzen denetik, Hezkuntza sailak ez duela parte hartuko euskarazko komunikazio-gaitasunaren inguruko egiaztagiriak emateko prozesuan, eta funtzio hori Kultura eta Hizkuntz Politika sailaren eginkizunen barruan geratuko dela.

Horregatik, Legezkotasun Zerbitzu honetan ez gatoz bat Hezkuntza Sailaren Lege Aholkularitzak egindako balorazioarekin. Hau da, ez gatoz bat Kultura eta Hizkuntz Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 82/2017 Dekretua aldatzeko ustezko behararekin (espresuki hezkuntza Sailari kendu zaion funtzioa dezan). Helburu hori lortzeko, ez dugu jotzen beharrezkotzat Kultura eta Hizkuntz Politika Sailaren egitura organikoa aldatzerik, kontutan hartuta, gainera, hori egiteko erabakia, nolana ere, Sail horri berari dagokiola. Gure ustez Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko Lehendakariaren 24/2016 Dekretuak nahiko eustarri juridikoa ematen dio Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari euskarazko komunikazio-gaitasunaren inguruko egiaztagirien aldetik funtzioak betetzeko. Horregatik honako egitasmoak proposatutako moduan uste dugu ez dagoela arau hutsunerik, ez eta segurtasun juridikoari kalterik.

Gure balorazioa, hortaz, emandako egitasmo honen aldekoa da.

IV
ONDORIOA

Aztertutako Dekretu proiektuaren aldeko txostena ematen dugu, indarrean dagoen legeriarekin bat datorrela uste dugulako.